Leioa KULTURA

umore azoka LEIOA

# Umore Azoka 2025



**LEIOAKO KALE ARTISTEN AZOKA**

FERIA DE ARTISTAS CALLEJEROS DE LEIOA

**Kartel lehiaketa**

Concurso cartel anunciador

XXV. Umore Azoka – Leioako kale artisten azoka iragarriko duen kartela hautatzeko lehiaketarako deialdia egin du Leioako Udalak. Hauek dira lehiaketaren oinarriak.

Lehiaketan edonork har dezake parte, bai partikularrek, bai enpresek.

Lehiakide bakoitzak bi lan aurkeztuko ditu gehienez.

Kartelean agertzen diren marrazki eta irudi guztiek originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute, eta ezin dira adimen artifizialagatik sortu. Erabili beharreko teknika librea izango da eta edozein modalitate artistikotan eginak (argazki, marrazki eta abar) erabil daiteke.

Bozetoak honela aurkeztuko dira: euskarri digitalean (JPG formatuan, 300 ppp bereizmenarekin eta 30x50 cm neurrikoak) eta formatu bertikalean.

## GAIA

Proposatutako kartelak azokaren irudiari lehentasuna ematea balioetsiko du Umore Azokaren antolakundeak.

Hizkuntza: elebiduna (euskara / gaztelania).

## AURKEZTEKO EPEA

Lanak urriaren 7tik azaroaren 11ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Kartel iragarleak honako testu hau jaso beharko du:

**UMORE AZOKA**
**XXV FERIA DE ARTISTAS**
**CALLEJEROS DE LEIOA**
**MAIATZAK 22, 23, 24, 25 MAYO 2025**
**25. edizioa 2000-2025 Edición 25**

Leioako Udala - Ayuntamiento de Leioa convoca un concurso para la elección del cartel anunciador de la XXV UMORE AZOKA - Feria de Artistas Callejeros de Leioa con arreglo a las siguientes bases:

El concurso es de libre participación, tanto para particulares como empresas.

Se presentarán un máximo de dos obras por concursante.

Todos los dibujos e imágenes que aparezcan en el cartel deberán ser originales e inéditos y no pueden generarse por inteligencia artificial. La técnica a emplear será libre y puede utilizarse cualquier modalidad artística, fotos, dibujos, etc.

Los bocetos se presentarán en soporte informático (en formato JPG resolución 300 ppp y proporción 30x50 cm), en formato vertical.

## TEMA

La Organización de Umore Azoka valora que la propuesta refleje prioritariamente la filosofía y la imagen de la Feria.

Idioma bilingüe (euskera / castellano).

## PLAZO DE PRESENTACIÓN

Se podrán presentar desde el 7 de octubre hasta el 11 de noviembre en Kultur Leioa.

El texto anunciador del cartel deberá contener las siguientes inscripciones:

**UMORE AZOKA**
**XXV FERIA DE ARTISTAS**
**CALLEJEROS DE LEIOA**
**MAIATZAK 22, 23, 24, 25 MAYO 2025**
**25. edizioa 2000-2025 Edición 25**

Proposamenak helbide honetara bidaliko dira: Kultur Leioa (Jose Ramon Aketxe plaza 11, 4. solairua, 48940 Leioa, Bizkaia).

Lanak goiburu bat dutela aurkeztuko dira, egilearen sinadurarik gabe.

Gutun-azal itxi baten azalean, lehengo goiburu bera jarriko da, eta gutun-azalaren barruan honako hauek jasoko dira: egilea identifikatzeko datuak, curriculum laburra, telefono-zenbakia eta NANa.

Aurkeztutako lanean ageri den argazki, ilustrazio edo baliabide grafikoren bat irudi-bankuetatik hartua izan bada edo aurkeztutako lanaren egileak egina ez bada, erabilera-eskubideak behar bezala kudeatuta eduki beharko ditu kartelaren egileak. Leioako Udalak ez du erantzukizunik hartzen aurkeztutako lanetako edukiekiko, hirugarrenek erreklamazioak aurkezten badituzte. Era berean, kartelek oreka bilatuko dute generoak irudikatzean, rol eta estereotipo tradizionalik nabarmendu gabe; gainera, ez du tratu gutxiesgarririk erakutsiko sexu, arraza, adin, kultura eta sexu-aukeren harira.

Kartel irabazlea azaroan iragarriko da.

Honako hauen irudiak jaso behar ditu kartelak: UMORE AZOKA - LEIOAKO UDALA, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta INAEM (Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala).

## SARIA

Lehen sari bat emango da, 1.400 €-koa (zergak barne).

Lehiaketa irabazlerik gabe utzi ahal izango da.

El envío se realizará a Kultur Leioa (Plz. Jose Ramon Aketxe nº 11, 4ª planta - 48940 Leioa, Bizkaia).

Los trabajos serán presentados bajo lema y sin firma del autor/a.

En sobre cerrado y bajo el mismo lema deberán incluirse los datos para la identificación del autor/a, breve currículum, incluido número de teléfono y DNI.

Todo trabajo presentado debe tener correctamente gestionados los derechos por la utilización de cualquier fotografía, ilustración o recurso gráfico que estén presentes en el cartel y que provengan de bancos de imágenes o no hayan sido realizados por el autor del trabajo presentado. El Ayuntamiento de Leioa declina cualquier responsabilidad derivada de las posibles reclamaciones a que dé lugar el contenido de las obras presentadas con relación a terceros, así mismo tenderán al equilibrio en la representación de los géneros, no forzar roles y estereotipos tradicionales y evitar cualquier tratamiento peyorativo en relación con las diferencias de sexo, raza, edad, cultura u opción sexual.

El cartel ganador se hará saber públicamente en el mes de noviembre.

El cartel deberá incorporar la imagen de UMORE AZOKA - LEIOAKO UDALA, Diputación Foral de Bizkaia, Gobierno Vasco e INAEM Instituto Nacional de las Artes Escénicas y Música

## PREMIOS

Se adjudicará un primer premio de 1.400€, impuestos incluidos.

El concurso podrá declararse desierto.

# KARTEL SARITUA

Leioako Udala izango da saritutako obraren eta haren gaineko ustiapen-eskubideen jabe legitimoa, bai eta erreprodukzio, egokitzapen, banaketa, komunikazio publiko eta hedapenerako eskubideen jabe ere, oraingo eta etorkizuneko euskarri eta plataforma guztietan, inolako mugarik gabe, lotzen den ekitaldiak hala eskatzen badu.

# LAN IRABAZLEA

Kartelaren exekuzio teknikoak tonalitateen aldaketaren bat behar badu hobeto inprimatzeko, bai eta ospakizunaren datak edo ortografia-akatsak zuzentzea ere, Epaimahaiak aldaketa hori ezarri ahal izango du, aldez aurretik kontsulta eginda eta egilearekin lankidetzan.

Saritutako kartelaren egileari edo egileei diseinuan erabilitako elementuak, tipografiak eta artxiboak emateko eskatu ahal izango zaie, horiek sustatzeko eta zabaltzeko beharrezkoak diren euskarri, formatu eta aplikazioetara errazago egokitzeko.

# IRABAZLEAREN KONPROMISOAK

Lehiaketaren irabazleak Leioako Udalari eman beharko dio aukeratutako kartelaren azken artea adierazten duen epeetan. Gainera, irabazleak konpromisoa hartzen du jatorrizko diseinutik abiatuta hainbat egokitzapen (azken arteak) egiteko euskarri hauetarako:

- Roll up (85x200 mm).
- Gonbidapena (210x100 mm).
- Kartela A3 tamainara egokitzea (297x420 mm).
- Orri-burua (A4) bertikala eta horizontala.

# CARTEL PREMIADO

El Ayuntamiento de Leioa será el legítimo propietario de la obra premiada y de los derechos de explotación sobre la misma, así como de los derechos de reproducción, adaptación, distribución, comunicación pública y difusión en todos los soportes y plataformas presentes y futuras, sin limitación alguna, que el evento al que se vincula requiera.

# OBRA GANADORA

Si la ejecución técnica del cartel requiriese alguna modificación de las tonalidades para su mejor impresión, así como la corrección de las fechas de celebración o errores ortográficos, el Jurado podrá imponer dicha variación, previa consulta y en colaboración con el autor/a.

La persona o personas autoras del cartel premiado podrán ser requeridas a facilitar los elementos, tipografías y archivos utilizados en el diseño para facilitar su adaptación a los diferentes soportes, formatos y aplicaciones necesarias para su promoción y difusión.

# COMPROMISOS DEL GANADOR

La persona ganadora del concurso deberá facilitar al Ayuntamiento de Leioa en los plazos que éste indique el arte final del cartel seleccionado. Además, se compromete a realizar distintas adaptaciones (artes finales) a partir de su diseño original para los siguientes soportes:

- Roll up (85x200 mm).
- Invitación (210x10 mm).
- Adaptación de cartel a tamaño A3 (297×420 mm).
- Cabecera de página (A4) vertical y horizontal.

- Iragarkiak A4, 168x245 mm, 110x105 mm, 210x260 mm.
- Txartelak (100x75 mm).
- Olanak (2.300x3.700 mm).
- Monolitoak (825x1.905 mm).

Aldi berean, irabazleak kartela formatu editagarrian entregatu beharko du, antolatzaileek beste euskarri batzuetara egokitzeko.

## EPAIMAHAIA

Leioako Udalak izendatuko du.

## EPAIMAHAIAREN AHALMENAK

Epaimahaiak lehiaketaren oinarriak betetzen direla egiaztatzeko ardura izango du, eta prozesuan zehar sor daitezkeen auziak ebatziko ditu.

Nolanahi ere, epaimahaiak edozein unetan utzi ahal izango du kanpoan lan bat, baldin eta:
- Deialdiaren helburuarekin bat ez badator.
- Eskatutako neurriak eta testua ez baditu.
- Askatasun eta berdintasun printzipioen aurkakoa bada.
- Pertsonen eskubideei eta duintasunari eraso egiten badie.
- Beste egile batzuen obraren plagioa direla edo adimen artifizialaren bidez sortu direla uste denean.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak goitik behera onartzen direla esan nahi du.

Lehiaketara aurkeztu eta sarituak izan ez diren lanak Kultur Leioan jaso ahal izango dira, 2025eko urtarrilaren 13tik martxoaren 7ra bitartean, 9:00etatik 13:00etara.

- Anuncios A4, 168x245 mm, 110x105 mm, 210x260 mm.
- Tarjetas (100x75 mm).
- Lonas (2.300x3.700 mm).
- Monolitos (825x1.905 mm).

De forma paralela, la persona ganadora ganador deberá entregar el cartel en formato editable para su adaptación a otros posibles soportes por parte de la organización.

## JURADO

Será el designado por Leioako Udala - Ayuntamiento de Leioa.

## FACULTADES DEL JURADO

El Jurado velará por el cumplimiento de las bases del concurso y resolverá cuantas cuestiones surjan en el transcurso del proceso.

En todo caso, el Jurado podrá descalificar, en cualquier momento, todos aquellos trabajos en los que concurra alguna de las siguientes circunstancias:
- Los que no se corresponden con el objeto de la convocatoria.
- Los trabajos que no cumplan las medidas y el texto correspondiente.
- Aquellos contrarios a los principios de libertad e igualdad.
- Los que atenten contra los derechos y la dignidad de las personas.
- Los que se considere que constituyen plagio de obra de otros autores o que se han generado por inteligencia artificial.

El hecho de participar en el presente concurso implica la aceptación total de las bases.

Los trabajos presentados al concurso y no premiados podrán retirarse en Kultur Leioa desde el día 13 de enero al 7 de marzo de 2025 en horario de 9:00 a 13:00h.